

		<h1>NCS-1/6</h1>
<h2>Segurtasun araua: DBLOko klausulak, Lantik-ek tratatu behar dituen datuak eskuratuta</h2>		
Gertutzearen eta mantentzearen arduraduna: Segurtasun Saila		Berrikuspena: 00 Indarrean jarri den data: 2013/07/17

1. XEDEA	2. EREMUA
Norberaren datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 12. artikulua eta 1720/2007 Errege Dekretuaren 21. artikulua betetzea (DBLO).	Lantiken tratamenduaren ardurapeko norberaren datuak atzitzeko bidea duten gainerako alderdiek egiten dituzten proiektu guztiak eta ematen dituzten zerbitzu guztiak. Hau da, Lantikek kontratatzen duen gainerako alderdi batek Lantiken jabetzapekoak ez diren baina bere sistemetan kudeatzen dituen datuak atzitu behar dituzten (berbarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren datuak).

3. GARAPENA

- I. Lantik S.A.k hainbat erakunderen (fitxategiaren arduradunak) jabetzakoak diren datu pertsonalen tratamenduaren arduradun gisa jarduten du, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera (hemendik aurrera DBLO).
- II. LANTIK S.A.rekin lan egiten duen erakunde bakoitzak fitxategi horiek adieraziko ditu Datuak Babesteko Agentziaren Erregistro Orokorrean.

Jarraian hitzartzen den guztia kontratatutako zerbitzua dela-eta adjudikaziodunak trata ditzakeen datu pertsonaletara mugatzen da.
- III. Kontratu honen zati gisa, adjudikazioduna tratamenduaren arduradun bihurtuko da kontratua gauzatzen denetik aurrera, DBLOren 12. artikuluen eta 1720/2007 Errege Dekretuaren 21c artikuluen arabera. Datuak Babesteko Agentziari jakinarazteko ondorioetarako, adjudikazioduna ados dago tratamenduaren arduradun gisa agertzearekin kontratu honen xede diren fitxategi guztietan.
- IV. Adjudikaziodunak ezin izango ditu datu horiek erabili kontratuan hartutako erabakietan adierazten den helburua ez denerako.

Segurtasun araua: DBLOko klausulak, Lantik-ek tratatu behar dituen datuak eskuratutaGertutzearen eta mantentzearen arduraduna:
Segurtasun Saila**Berrikuspena: 00**Indarrean jarri den data: **2013/07/17**

- V. Adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du datuak fitxategiaren arduradunak adierazi bezala tratatzeko.
- VI. Adjudikaziodunak ez dizkie inola ere datuak jakinarazi, erakutsi, laga edo ezagutaraziko kontratuan ezartzen den kontratu harremanarekin zerikusirik ez duten hirugarrenei, ezta horiek kontserbatzeko ere, berariazko errekerimendu judizialik egon ezean.
- VII. Beren-beregi debekatuko da kontratazioaren xede den zerbitzu osoan edo zati batean hirugarrenekin azpikontratatzea, honako betekizun hauek bete ezean:
- Tratamendu hori LANTIK S.A.k eta adjudikaziodunak sinatutako kontratuan zehaztea.
 - Datu pertsonalen tratamendua bat etortzea fitxategiaren arduradunaren jarraibideekin.
 - Adjudikaziodunak eta hirugarrenak kontratua abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 12.2 artikuluan ezarri bezala gauzatzea.
- Kasu horretan, hirugarrena ere tratamenduaren arduraduntzat joko da.
- VIII. Adjudikaziodunak aplikatu beharreko datuak babesteari buruzko indarreko legedian xedatutako guztia betetzeko konpromisoa hartuko du. Horrela, kontratu hau egitearen ondorioz edozein langilek dakizkien datuek ahalik eta konfidentzialtasun zorrotzenari heldu beharko diote. Horrenbestez, ezin izango zaizkie hirugarrenei jakinarazi edo norberaren erabilerarako erabili, eta fitxategiaren arduradunarentzat, Lantik S.A.rako eta ukitutakoentzat ondorioztatu daitezkeen kalteen erantzulea izango da.
- IX. Adjudikaziodunak egiaztatuko du bere langileek konfidentzialtasun-klausula sinatu dutela. Horren arabera, konpromisoa hartu dute kontratua gauzatzen

Segurtasun araua: DBLOko klausulak, Lantik-ek tratatu behar dituen datuak eskuratutaGertutzearen eta mantentzearen arduraduna:
Segurtasun Saila**Berrikuspena: 00**Indarrean jarri den data: **2013/07/17**

den bitartean edo horren ondoren haien lanpostuaren edo eginkizunaren arabera ezagutzen duten informazioa ez jakinarazteko.

- X.** Adjudikaziodunari baimena eman bazaio kontratutik datorren datuen bati eusteko, LANTIK S.A.ri itzuli beharko dio, kontratuaren zerbitzua bete eta gero. Datuen mantentze-lanak babesten dituen legedirik badago, datu horiek behar bezala blokeatuta egon beharko dira, balizko erantzukizun juridikoak ondorioztatzeko aukera dagoen bitartean.
- XI.** Adjudikazioduna datuak babesteko araudiak ezarritako erantzukizun-araubideari lotuta egongo da, eta bere izenean erantzungo du, datuak kontratu honetan hitzartutako erabilera ez denerako erabiltzen baditu, hirugarrenei jakinarazten badizkie edo kontratuaren klausuletako baten bat bete gabe horiek erabiltzen baditu.
- XII.** Adjudikaziodunak teknika eta antolaketa arloko beharrezko segurtasun-neurriak ezarri beharko ditu, zerbitzuak ematen dituen bitartean eskuratzen dituen datu pertsonalei dagokien babes-mailaren arabera datuak babesteko indarreko araudiak ezartzen dituenak. Kontratu honetarako gutxieneko derrigorrezko segurtasun-neurriak I. eranskinean adierazi dira.
- XIII.** Adjudikaziodunak zerbitzuak bere lokaletan, hau da, tratamenduaren arduradunarekin zerikusirik ez dutenetan ematen baditu, zirkunstantzia horren berri eman beharko da bere segurtasun-dokumentuan, eta fitxategia edo tratamendua eta horren arduraduna adieraziko ditu, baita tratamendu horren inguruan ezarri beharreko segurtasun-neurriak ere.
- XIV.** Fitxategiaren arduradunak edo LANTIK S.A.k datuen babesari buruzko ikuskapen-txostena eskatu ahalko du bi urtean behin, komenigarritzat jotzen badu. Txosten horretan kontratatutako zerbitzuak eta betetze-maila banakatuko dira, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren eta hori

Segurtasun araua: DBLOko klausulak, Lantik-ek tratatu behar dituen datuak eskuratutaGertutzearen eta mantentzearen arduraduna:
Segurtasun Saila**Berrikuspena: 00**Indarrean jarri den data: **2013/07/17**

garatzen duen araudiaren arabera. Ikuskapena LANTIK S.A.k eta adjudikaziodunak aurretik onartu dituzten aditu independenteek egingo dute.

- XV.** Adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du aplikazioak eta informazio-sistemak datuak babesteko aldizkako ikuskapenak egin ahal izateko moduan ezartzeko.
- XVI.** Hona hemen kontratua suntsiarazteko arrazoiak: adjudikaziodunak edo langileek sekretua gordetzeko eginbeharra bortxatzea, eta datu pertsonalak babesteko araudia ez betetzea.

Segurtasun araua: DBLOko klausulak, Lantik-ek tratatu behar dituen datuak eskuratutaGertutzearen eta mantentzearen arduraduna:
Segurtasun Saila**Berrikuspena: 00**Indarrean jarri den data: **2013/07/17****I. ERANSKINA – SEGURTASUN-NEURRIAK**

Adjudikaziodunak ezarri beharko dituen segurtasun-neurriak honako hauek izango dira:

- **OINARRIZKO** mailako datuetarako neurriak: 1. eta 20. paragrafoen arteko neurriak aplikatu beharko dira.
- **ERDI** mailako datuetarako neurriak: 1. eta 27. paragrafoen arteko neurriak aplikatu beharko dira.
- **GOI** mailako datuetarako neurriak: 1. eta 33. paragrafoen arteko neurriak aplikatu beharko dira.

Datuen sailkapena 1720/2007 Errege Dekretuaren 81. artikulua oinarri hartuta egingo da. Honako hau dio, laburbilduta:

- Oinarrizko maila: Datu pertsonalen fitxategi edo tratamendu guztiak oinarrizko mailako segurtasun-neurriak hartu beharko dituzte.
- Erdi maila: Oinarrizko mailako neurri guztiak eta maila honetakoak beteko dituzte datuen honako fitxategi edo tratamendu hauek:
 - Administrazio edo zigor arloko arau-haustea egiteari lotutakoak.
 - Ondare-kaudimenari buruzko informazio-zerbitzuak emateari lotutakoak.
 - Zerga Administrazioak erantzule dituztenak eta haien zerga ahalmenak erabiltzeari lotuta daudenak.
 - Herritarren ezaugarrien edo nortasunaren definizioa eskaintzen duten eta horien nortasunaren edo portaeraren zenbait alde ebaluatzeko aukera ematen duten datu pertsonalak dituztenak.
 - Finantza entitateak, gizarte segurantzaren zerbitzu komunen kudeaketa-entitateak, eta laneko istripuen eta lanbide-gaixotasunen

Segurtasun araua: DBLOko klausulak, Lantik-ek tratatu behar dituen datuak eskuratutaGertutzearen eta mantentzearen arduraduna:
Segurtasun Saila**Berrikuspena: 00**Indarrean jarri den data: **2013/07/17**

mutualitateak erantzule dituzten bestelako datuak, haien eskumenak erabiltzeko.

- Goi maila: Oinarrizko eta erdi mailako neurriez gain, neurri hauek aplikatu beharko dira honako kasu hauetan:
 - Ideologia, sindikatu-afiliazio, erlijio, sinesmen, arraza, osasun edo sexu bizitzari lotutako datuak dituztenak.
 - Poliziaren helburuetarako bildutako datuak dituztenak edo horiei lotuta daudenak, ukitutako pertsonen adostasunik gabe.
 - Genero-indarkeriako ekintzetatik datozen datuak dituztenak.

Zalantzaren bat baduzu, jarri harremanetan LANTIK S.A.ko Segurtasun Atalarekin.

Segurtasun araua: DBLOko klausulak, Lantik-ek tratatu behar dituen datuak eskuratutaGertutzearen eta mantentzearen arduraduna:
Segurtasun Saila**Berrikuspena: 00**Indarrean jarri den data: **2013/07/17****OINARRIZKO MAILAKO NEURRIAK****• Komunikazio sareen bidez eskuratzea**

1. Adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du komunikazio sareen bidez datu pertsonalak eskuratzeari eska dakizkiokeen segurtasun-neurriek sarbide lokalei dagokien segurtasun-mailaren antzekoa bermatzeko.

• Fitxategia kokatuta dagoen lokaletik kanpoko lan-araubidea

2. Fitxategiaren arduradunak beren-beregi baimendu beharko du datu pertsonalen tratamendua fitxategia kokatuta dagoen lokaletik kanpo. Adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du lokaletik kanpo tratatutako fitxategi motari dagokion segurtasun-mailaren berdina bermatzeko. Baimen horrek datu pertsonalen tratamendua fitxategia kokatuta dagoen lokaletik kanpo onartzen du hurrengo kasuetan:

1. Kokalekua segurtasun-kopietarako.
2. Datuak berreskuratzea.
3. Gertakizunak.
4. Gertakizun planen simulazioak.
5. Ekipoen mantentze-lanak.

• Aldi baterako fitxategiak

3. Adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du aldi baterako fitxategiek fitxategiaren arduradunak adierazitako datu pertsonalen izaeraren arabera dagokien segurtasun-maila betetzeko.
4. Adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du aldi baterako fitxategi guztiak ezabatzeko, horiek sortzea eragin zuen helbururako beharrezkoak izateari utzi eta gero.

Segurtasun araua: DBLOko klausulak, Lantik-ek tratatu behar dituen datuak eskuratutaGertutzearen eta mantentzearen arduraduna:
Segurtasun Saila**Berrikuspena: 00**Indarrean jarri den data: **2013/07/17**

- **Gertakarien erregistroa**

5. Adjudikaziodunak gertakariak jakinarazteko eta kudeatzeko prozedura bat izango du. Horrek erregistro bat izango du nahitaez, eta bertan datu pertsonalen fitxategi zehatza, gertakari mota, gertakaria gertatu den unea, jakinarazpena egiten duen pertsona, horretatik ondoriozta zitezkeen eraginak eta aplikatutako neurri zuzentzaileak adieraziko dira.
6. Adjudikaziodunak segurtasuneko gertakaritzat joko ditu datu berreskuratzeak, eta, beraz, idatziz jasoko ditu, prozesua egikaritu duen pertsona, berreskuratutako datuak eta, hala denean, berreskuratze prozesuan eskuz zein datu grabatu behar izan diren adierazita.

- **Identifikazioa eta autentifikazioa**

7. Adjudikaziodunak mekanismo bat ezarriko du, informazio-sistemara sartzen saiatzen den erabiltzailea zalantzarik gabe eta modu pertsonalizatuan identifikatzea eta baimenduta dagoela egiaztatzea ahalbidetzen duena.
8. Autentifikazio mekanismoa pasahitzak egoteko aukeran oinarritzen bada, adjudikaziodunak esleipen, banaketa eta biltegiratze tresna bat izango du, haren konfidentzialtasuna eta segurtasuna bermatzen dituena.
9. Adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du pasahitzak kontrolatzen dituzten mekanismoek erabiltzailea urtebetetik beherako aldizkakotasunez aldatzera behartzeko, eta, pasahitzak indarrean dauden bitartean, modu ulertezinean biltegiratuko dira.

Segurtasun araua: DBLOko klausulak, Lantik-ek tratatu behar dituen datuak eskuratutaGertutzearen eta mantentzearen arduraduna:
Segurtasun Saila**Berrikuspena: 00**Indarrean jarri den data: **2013/07/17**

- **Sarbide-kontrola**

10. Adjudikazioduneko erabiltzaileek sarbide baimendua izango dute beren eginkizunak garatzeko behar duten profila duten aplikazioetarako bakarrik, erabiltzaileak administratzeko zerbitzuaren azalpenean ezarri bezala.
11. Adjudikaziodunak erabiltzaileek baimendutako eskubideak ez direnak dituzten aplikazioak eskuratzeko eragozteko mekanismoak ezarriko ditu.
12. Baimendutako erabiltzaileek baino ezin izango dute aplikazioei buruzko sarbide baimendua eman, aldatu edo ezeztatu.

- **Euskarrien kudeaketa**

13. Adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du datu pertsonalak dituzten euskarri informatikoen inbentarioa duen katalogo bat izateko, duten informazio mota identifikatuta, eta langile baimenduentzat mugatutako sarbidea duen toki batean biltegitratzeko.
14. Datu pertsonalak dituzten euskarri informatikoak fitxategia dagoen lokaletik kanpo ateratzeko, fitxategiaren arduradunak baimena eman beharko du.
15. Adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du, euskarria baztertu edo berrerabiliko bada, bertan biltegitratutako informazioa ondoren berreskuratzea eragozteko beharrezko neurriak hartzeko.
16. Adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du, euskarriak fitxategiak dagoen lokaletik kanpo irtengo badira, horietan biltegitratutako informazioa behar ez bezala berreskuratzea eragozteko beharrezko neurriak hartzeko.

Segurtasun araua: DBLOko klausulak, Lantik-ek tratatu behar dituen datuak eskuratutaGertutzearen eta mantentzearen arduraduna:
Segurtasun Saila**Berrikuspena: 00**Indarrean jarri den data: **2013/07/17**

- **Babeskopiak eta berreskuratze-kopiak**

17. Adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du babeskopiak egiteko eta datuak berreskuratzeke ezartzen diren prozedurek galera edo suntsidura gertatu den unean zeuden moduan berreskuratzen direla bermatzeko, ustiapenari buruzko eskuliburuan adierazi bezala.
18. Adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du babeskopiak astero, gutxienez, egiteko, aldi horretan datuak inola ere eguneratu ezean.

- **Datu errealekin egindako probak**

19. Adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du datu pertsonalak dituzten fitxategiak tratatzen dituzten informazio-sistemak ezarri edo aldatu aurreko probak datu errealekin ez egiteko, tratatutako fitxategi motari dagokion segurtasun-maila bermatu ezean. Horren harira, jatorrizko fitxategiari aplikatzen zaizkion segurtasun-neurrien baliokideak aplikatuko dira, eta aurretik segurtasun-kopia bat egingo da.

- **Euskarri automatizatugabeko fitxategiak**

20. Adjudikaziodunak datu pertsonalak dituzten euskarri automatizatugabeko fitxategiak tratatzeko honako berariazko neurri hauek ezarri beharko ditu:
 - Euskarriak eta dokumentuak artxibatzeko irizpideak eta prozedurak ezarriko ditu, kontserbazio, lokalizazio eta kontsulta zuzenak eta aurka egiteko, eskuratzeko, zuzentzeko eta ezeztatzeke eskubideak gauzatzeko aukera bermatzeko asmoz. Nolanahi ere, aplikatu beharreko sektore arauan xedatutako irizpideei jarraituko zaie.
 - Datu pertsonalak dituzten dokumentuak biltegitratzeko gailuek horiek irekitzea eragozten duten mekanismoak izan beharko

Segurtasun araua: DBLOko klausulak, Lantik-ek tratatu behar dituen datuak eskuratutaGertutzearen eta mantentzearen arduraduna:
Segurtasun Saila**Berrikuspena: 00**Indarrean jarri den data: **2013/07/17**

dituzte, eta, nolnahi ere, baimendu gabeko pertsonen eskuratzea eragozten duten neurriak hartuko dira.

- Neurriak ezarriko dira, dokumentazioa berrikusteko edo bideratzeko prozesuetan baimendu gabeko pertsonen eskuratzea eragozteko asmoz.

ERDI MAILAKO NEURRIAK

- **Segurtasun arduraduna**

21. Adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du segurtasun arduradun bat edo batzuk hautatzeko. Segurtasun arduraduna datu pertsonalen tratamenduari aplikatu beharreko segurtasun-neurriak koordinatzeaz eta zuzen aplikatzen direla kontrolatzeaz arduratuko da.

- **Ikuskapena**

22. Adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du informazio-sistemak eta datuak tratatzeko instalazioak datuen segurtasunaren arloan indarrean dauden araudia, prozedurak eta jarraibideak betetzen direla egiaztatzen duen ikuskapen baten pean jartzeko bi urtean behin, gutxienez. Fitxategiaren arduradunaren jabetzakoak diren informazio-sistemak ikuskapenaren eremutik kanpo egongo dira.

23. Ikuskapenaren txostenak irizpena eman beharko du neurriak eta kontrolak **Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzeko Araudia onetsi duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren VIII. Titulurako** egokiak izateari buruz, haren gabeziak identifikatu beharko ditu, eta beharrezko neurri zuzentzaileak edo osagarriak proposatu beharko ditu. Halaber, hartutako irizpenei eta proposatutako gomendioei oinarria ematen dieten datuak, gertaerak eta oharrak adierazi beharko ditu.

Segurtasun araua: DBLOko klausulak, Lantik-ek tratatu behar dituen datuak eskuratutaGertutzearen eta mantentzearen arduraduna:
Segurtasun Saila**Berrikuspena: 00**Indarrean jarri den data: **2013/07/17**

24. Segurtasun arduradun eskudunak ikuskapenaren txostenak aztertu, eta ondorioak fitxategiaren arduradunari jakinaraziko dizkio, neurri zuzentzaile egokiak har ditzan. Txostenak Datuak Babesteko Agentziaren esku egongo dira.

- **Identifikazioa eta autentifikazioa**

25. Adjudikaziodunak ezarriko du informazio-sistemara baimenik gabe sartzeko aukerak 5 izango direla, gehienez.

- **Euskarrien kudeaketa**

26. Adjudikaziodunak euskarriak sartzeko erregistro-sistema bat ezarriko du, euskarri mota, eguna eta ordua, jaulkitzailea, euskarrien kopurua, duten informazio mota, bidaltzeko modua eta hartzeaz arduratzen den pertsona, behar bezalako baimena izan beharko duena, zuzenean edo zeharka jakitea ahalbidetzen duena.

27. Adjudikaziodunak euskarriak ateratzeko erregistro-sistema bat ezarriko du, euskarri mota, eguna eta ordua, hartzailea, euskarrien kopurua, duten informazio mota, bidaltzeko modua eta emateaz arduratzen den pertsona, behar bezalako baimena izan beharko duena, zuzenean edo zeharka jakitea ahalbidetzen duena.

GOI MAILAKO NEURRIAK

- **Euskarrien banaketa**

28. Adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du datu pertsonalak dituzten euskarrien banaketa datu horiek zifratuz edo informazio hori garraiatzean ulergarria ez dela edo erabiltzen ez dela bermatzen duen beste edozein mekanismo erabiliz egiteko.

Segurtasun araua: DBLOko klausulak, Lantik-ek tratatu behar dituen datuak eskuratutaGertutzearen eta mantentzearen arduraduna:
Segurtasun Saila**Berrikuspena: 00**Indarrean jarri den data: **2013/07/17**

- **Sarbideen erregistroa**

29. Adjudikaziodunak mekanismo bat izango du, goi mailako datuen fitxategietan sartzen saiatzen den aldi bakoitzean honako hau egingo duena:

- Erabiltzailearen identifikazioa, sarbidea egin den eguna eta ordua, eskuratutako fitxategia, sarbide mota eta baimendu edo ezeztatu den gorde, gutxienez.
- Sarbidea baimendu bada, erregistro hori identifikatzea ahalbidetzen duen informazioa gorde.
- Sartzeko datuak erregistratzea ahalbidetzen duten mekanismoak adjudikazioduneko langile eskudunen zuzeneko kontrolpean egongo dira, eta ez da inola ere baimenduko horiek desgaitzea.
- Erregistratutako datuak kontserbatzeko gutxienerako aldia bi urtekoa da.

- **Babeskopiak eta berreskuratze-kopiak**

30. Adjudikaziodunak babeskopia bat eta datuak berreskuratzeko prozeduren kopia bat gordeko ditu datuak tratatzen dituzten ekipo informatikoak dauden tokia ez den batean, nolahi ere eskatutako segurtasun-neurriak beteta.

- **Telekomunikazioak**

31. Adjudikaziodunak konpromisoa hartuko du datu pertsonalen sare publikoen edo telekomunikazioen haririk gabeko sareen bidezko transmisioa datu horiek zifratuz edo informazioa ulergarria ez dela edo hirugarrenek erabiltzen ez dutela bermatzen duen beste edozein mekanismo erabiliz egiteko.

Segurtasun araua: DBLOko klausulak, Lantik-ek tratatu behar dituen datuak eskuratutaGertutzearen eta mantentzearen arduraduna:
Segurtasun Saila**Berrikuspena: 00**Indarrean jarri den data: **2013/07/17**

- **Enkriptaketa**

32. Adjudikaziodunak bermatuko du fitxategiari goi maila ematen dioten datuak horiek biltzen dituzten euskarrietan eta ekipo informatikoetan zifratuta egongo direla.

- **Euskarri automatizatugabeko tratamenduak**

33. Adjudikaziodunak honako prozedura eta neurri hauek ezarri beharko ditu, goi mailako fitxategi automatizatugabeen tratamenduaren aurrean:

- Datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatugabeak biltegitratzen dituzten armairuak, artxiboak eta bestelako elementuak giltzaz irekitzeko sistemak edo gailu baliokidea dituzten ateen bidez babestutako sarbidea duten eremuetan egon beharko dira. Horien ezaugarriak direla-eta hori egin ezin bada, ordezeko neurriak hartuko dira, eta haren segurtasun-dokumentuan arrazoituko dira.
- Kopia sortzea edo dokumentuak kopiatzea segurtasun-dokumentuan baimendutako langileen kontrolpean baino ezin izango da egin. Baztertutako kopia edo erreproduzioak suntsitu beharko dira, informazioa eskuratzea edo ondoren berreskuratzea eragozteko moduan.
- Langile baimenduek baino ezin izango dute informazioa eskuratu, eta hainbat erabiltzailek egindako sarbideak identifikatzea ahalbidetzen duten mekanismoak ezarriko dira. Halaber, baimendu gabeko langileen sarbideak ere erregistratuko dira, segurtasun-dokumentuan ondorio horretarako ezarritako prozeduraren arabera.
- Lekualdatu beharreko informazioa eskuratzea edo erabiltzea eragozteko helburua duten neurriak hartu beharko dira.

Segurtasun araua: DBLOko klausulak, Lantik-ek tratatu behar dituen datuak eskuratutaGertutzearen eta mantentzearen arduraduna:
Segurtasun Saila**Berrikuspena: 00**Indarrean jarri den data: **2013/07/17****4 BERRIKUSPEN HISTORIA**

Berrikuspena	Data	Aldaketa
00	2013/07/17	Arauaren onartzea